

**ONDAREAREN  
EUROPAKO  
JARDUNALDIAK**

**JORNADAS  
EUROPEAS DEL  
PATRIMONIO**

**BIZKAIA 2019**

**Urria / Octubre**

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral




Europa,  
guztion ondarea



# ONDAREA



# PLAZARA!



OndareaBizkaia2019

[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/jep](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/jep)

# 2019ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

## JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO 2019

Zuzendaritza eta koordinazio orokorra  
Dirección y coordinación general:



### Edukien koordinazioa

#### Coordinación de contenidos:

Ainara Martínez Matía  
Amaia Apraiz Sahagún

#### Itzulpena / Traducción:

ASAP, traductores

#### Argazkiak / Fotografías:

Antolatzaileen argazki artxiboak/Archivos fotográficos de las entidades organizadoras: AUNIA (Bakio 1a, 1b; Orozko 1, 2a, 2b, 2c y Orozko 3, Otxandio 1a, 1b y Zeanuri2); Cofradía de la Putxera/Olla Ferroviaria (Balmaseda 1a, 1b); Orixinal (Balmaseda 2); Carlos Pueyo (Itsasmuseum 1a, 1b); BELE (Conservatorio J.C.Arriaga 1a); Alba Prieto (Conservatorio J.C. Arriaga 1b); Txelu Angoitia (Elorrio 1a, 1b); Gordexolako eman! EPKE (Gordexola 2); Juanjo Zorrilla (Gordexola 3); Miguel Sabino Díaz (Karrantza 1, 3a y 3b); Basquemountains (Karrantza 2); Ramón Oleaga Páramo (Oleaga 1a, 1b y 1c); Iñaki García Uribe (Ugao 1a, 1b, Ugao2)

#### Maketazioa / Maquetación:

Ouidesign


#### Inprimategia / Imprenta:

CTP.

L.G./D.I:  
BI-1253-2019

# ONDAREA

# PLAZARA!



# AURKIBIDEA ÍNDICE

Abadiño .....	4,5	Galdakao .....	44,45
Abanto-Zierbena / Abanto y Ciérvana .....	6	Galdames.....	46,47
Amorebieta-Etxano.....	7	Garai .....	48
Areatza .....	8,9	Gernika-Lumo.Bilbao .....	49
Artzentales.....	9	Gernika-Lumo .....	50,51,52,53
Aulesti.....	10	Getxo. Portugalete.....	54
Bakio.....	11	Getxo .....	54,55,56
Balmaseda .....	12,13	Gordexola .....	57,58
Barakaldo.....	14	Gorliz .....	59,60
Basauri.....	15	Güeñes.....	61
Berango .....	16,17	Igorre .....	61
Bermeo .....	18	Igerrak.Ondare Lagunak .....	62
Berriatua .....	19	Iurreta .....	63
Berriz.....	20	Izurtza.....	63
Bilbao: Arkeologi Museoa/Euskal Museoa .....	21	Karrantza Harana / Valle de Carranza.....	64,65
Bilbao: Arkeologi Museoa .....	22,23	Lekeitio .....	66
Bilbao: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala – Colegio Oficial de Arquitectos Vasco -Navarro .....	23	Lezama .....	67
Bilbao: Artelan Berreginen Museoa- Museo de Reproducciones Artísticas de Bilbao .....	24	Loiu .....	67
Bilbao: Berpiztu .....	24	Mañaria .....	68
Bilbao: Bilbao Historiko.....	25	Markina-Xemein .....	68,69,70
Bilbao: Club Cocherito .....	26	Mundaka .....	71
Bilbao: Filarmonika Elkartea- Sociedad Filarmónica de Bilbao .....	27	Mungia .....	72
Bilbao: Euskadiko Artxibo Historikoa- Archivo Histórico de Euskadi.....	28	Murueta.....	73
Bilbao: Euskaltzaindia .....	28	Muskiz .....	73,74,75
Bilbao: Euskal Museoa.....	29	Muxika .....	76
Bilbao: Foru Liburutegi.....	30	Ondarroa .....	77
Bilbao: Instituto Txinatarra eta Instituto Japoniarra. Instituto Chino e Instituto Japonés. ....	31	Orozko .....	77,78,79
Bilbao: ItsasMuseum. ....	32,33	Otxandio .....	80,81
Bilbao: Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioa. Conservatorio de Música.....	34	Plentzia .....	81
Bilbao: Oleaga Bilduma. Colección Oleaga.....	35	Portugalete .....	82
Bilbao: Ondare Aretoa .....	36	Santurtzi .....	83,84
Bilbao: Vista Alegre Zezen Plaza. Plaza de toros Vista Alegre.....	37	Sestao.....	85
Busturia .....	38	Sopela.....	86
Derio .....	38,39	Sopuerta .....	87
Durango .....	40,41	Trucíos-Turtzioz .....	87
Elorrio .....	42	Ugao-Miraballes .....	88,89
Etxebarri.....	43	Urduña / Orduña .....	90,91,92,93
		Zalla .....	94
		Zamudio.....	95
		Zeanuri.....	96, 97
		Ziortza-Bolibar .....	97



## GOMENDIO BATZUK:

### BISITA EGIN AURRETIK

- **Planifikatu ondo ibilbidea**

ESKU artean daukazu programak kultur proposamen asko eta desberdinak eskaintzen dizkizu, guztiak Bizkaiko lurraldean. Programa arretaz irakurtzeko gomendatzen dizugu, planifikazio ona eginda, ahalik eta jarduera gehiagotan parte hartu ahal izateko. Gogoratu bisita asko egiteko hitzordua eskatu behar dela aurretik.

- **Baieztatu aurretik programan agertzen diren datuak**

Katalogo hau jarduerak hasi baino dezente lehenago argitaratzen da; horregatik, datu batzuk, adibidez, ordutegiak, elkartzeko guneak eta abar, aldatu daitezke. Aukeraturakotako jarduerarekin batera agertzen den telefonoarekin harremanetan jarri behar zara, zehetasun guztiak baieztatzeko.

### BISITA EGUNA

- **Jantzi arropa eta oinetako egokiak**

Jarduera askotan, landa-bide eta -bidezidorretan zehar ibili behar da; beraz, gomendagarria da oinetako eta arropa erosoak erabiltzea. Aurrekoaz gain, euria eginez gero, eraman zira edo euritakoa. Gomendio gehiago nahi badituzu, deitu jarduera bakoitzaren telefonora.

- **Izan adeitsua taldearekin**

Garaiz heldu; aztertu aurretik abiapuntura iristeko ibilbidea. Bisitan zehar, ez distraitu beste parte-hartzaileak eta adi egon gidaren jarraibideei.

- **Jakinarazi zure iritzia**

Bisita amaitzen denean, jakinarazi gidari hari buruz dituzun iritzia. Gogobetetze-inkestak dauden lekuetan, mesedez, hartu minutu batzuk betetzeko. Zure iritzia hobetzen laguntzen digute.

## ALGUNAS RECOMENDACIONES:

### ANTES DE LA VISITA

- **Planifique bien su recorrido**

El programa que tiene entre sus manos pone a su alcance una gran cantidad y diversidad de propuestas culturales por todo el territorio de Bizkaia. Se recomienda una lectura detenida para planificarse y así poder participar en el mayor número de actividades posible. Recuerde que en muchos casos es necesario concertar cita previa para poder sumarse a las visitas.

- **Confirme con antelación los datos que figuran en este programa**

Este catálogo se edita con bastante tiempo de antelación respecto a la fecha de inicio de las actividades, por lo que algunos datos, como horarios, puntos de encuentro, etc., pueden variar. Es necesario ponerse en contacto con el número de teléfono asociado a la actividad que usted haya seleccionado para confirmar todos los detalles.

### EL DÍA DE LA VISITA

- **Vista ropa y calzado adecuados**

Muchas de las actividades discurren por caminos y senderos rurales, por lo que es recomendable vestir calzado y ropa cómodos. En caso de lluvia, tenga la precaución de llevar además impermeables o paraguas. Para recomendaciones particulares, póngase en contacto con el número de teléfono de cada actividad.

- **Sea respetuoso con el grupo**

Sea puntual, estudie la ruta de llegada al punto de partida con antelación. En el transcurso de la visita no distraiga al resto de participantes, siga las indicaciones del o de la guía.

- **Comuniquenos sus opiniones**

Al terminar no dude en comentar con el o la guía sus impresiones sobre la visita. En aquellos lugares donde encuentre encuestas de satisfacción, dedique unos minutos a cumplimentarlas. Sus opiniones nos ayudan a mejorar.

## ONDAREA PLAZARA! Gure kultur ondarea, plazara.

Kultur ondarea oso gutxitan da pertsona bakar baten egintza. Izan ere, bat gatozen ekintzak, gure bizitzari benetan zentzua ematen diotenak eta inplikatu eta esku hartzera bultzatzen gaituztenak, adierazpen kolektiboak ohi dira. Eta, gainera, jendaurreko eszenaratzeak dira, ororen tokietan gertatzen dira eta parte hartzera kilikatzen gaituzte. Gure aurrekoek sortu zituzten, eta geroko belaunaldiak jakinarazteko joera dutenez, jarraitutasun sentimendua sortzen dute. Sormenaren adierazpenak dira eta jakintza-trukean eta esperientzia kolektiboan sakontzen dute, azken finean, komunitateen gizartekoitasunean.

Ondarearen Europako 2019ko Jardunaldiak, egunerokotasunetik ihes egiteko eta gure kulturaren zati bat geureganatzeko bidea ematen diguten adierazpen horiek nabarmendu nahi dituzte. Horregatik, aurten inoiz baino gehiago, herritarrei Jardunaldi horietan parte hartzeko gonbit egin nahi diegu; hain zuzen, ludikotik erritualekin eta berezki zeremonia-tsurainokoak diren baina beti partaidetasunera zabalik dauden adierazpenak antzeman eta partekatzen. Objektu eta tokietan gauzatzen den eta aberasten eta ondorengoei helerazten jakin behar dugun teknikak eta ezagutzak dakartzan kultura-ondare biziaren alderdi ukigarriak eta ukiezinak.

Plaza, antzoki, pilotaleku, zezen-plaza eta probalekuetatik, musika-kiosko eta elizpeetatik, musika, dantza, joko, kirol eta erromeriek Bizkaiko ondarea ezagutzeko gonbit egingo digute, urtero bezala. Eta, era berean —eta hemen dago alde berria—, gu protagonista bilakatzeko proposatuko digute, dantza egiten, abestiak ikasten, antzezlanak ikusten, horma-irudi artistikoak sortzen, antzinako erromesbideetatik ibiltzen, musika-tresnak fabrikatzen, herri ezberdinetako adierazpenak nahasten eta, batez ere, pertsonen eta komunitateen artean loturak sortzen. Ba al dago gure kultur ondarea babesteko modu hoberik?

## ONDAREA PLAZARA! Nuestro patrimonio cultural a escena.

Raramente el patrimonio cultural es obra de una sola persona. Las realizaciones con las que nos identificamos, las que realmente dan sentido a nuestra existencia y hacen que nos impliquemos y tomemos parte, suelen ser expresiones colectivas. Y son, además, puestas en escena públicas, que tienen lugar en espacios comunes y que nos invitan a participar. Fueron creadas por quienes nos precedieron y tienen vocación de transmitirse a las generaciones venideras, creando un sentimiento de continuidad. Son expresiones de la creatividad y ahondan en el intercambio de saberes, en la experiencia colectiva y, en definitiva, en la sociabilidad de las comunidades.

Las Jornadas Europeas de Patrimonio de 2019 quieren dar protagonismo a todas estas manifestaciones que nos permiten evadirnos de la cotidianidad y apropiarnos de una parte de nuestra cultura. Por eso, este año más que nunca, queremos invitar a la ciudadanía a tomar parte en estas Jornadas. A reconocer y poner en común esas expresiones que van de lo lúdico a lo ritual, de lo espontáneo a lo ceremonioso, pero que están siempre abiertas a la participación. Aspectos tangibles e intangibles de un acervo cultural vivo que se materializa en objetos y lugares, y que da lugar a técnicas y conocimientos que hemos de saber enriquecer y trasladar a quienes nos sucedan.

Desde las plazas, los teatros, los frontones, cosos y carrejos, desde los kioscos de música y los pórticos de las iglesias, la música, la danza, los juegos, los deportes y las romerías nos invitarán, como cada año, a conocer el patrimonio de Bizkaia. Pero también —y aquí está la novedad— nos propondrán convertirnos en protagonistas, interactuando en bailes, aprendiendo canciones, contemplando obras teatrales, creando murales artísticos, recorriendo antiguos caminos de peregrinación, fabricando instrumentos musicales, amalgamando las expresiones de pueblos diferentes y, sobre todo, estableciendo lazos entre personas y comunidades. ¿Existe una mejor manera de salvaguardar nuestro patrimonio cultural?

# ABADIÑO

## SUTONDOTIK GEREDIAGAKO PLAZARA!

Ipuin-kontalaria nagusientzat eta  
Mikel Urdangarinen kontzertua

Mendez mende Euskal Herrian literatura ahoz ezagutarazteko baliatu den eran parte hartzeko aukera emango digu Eguzki kontalariak. Durangaldeko kontakizun tradizionalen eta Kirikiño, Errose Bustintza, Sarrionandiaren eta hainbat idazleren ipuinen eskutik, eskualde horretako hitza eta euskara berreskuratuko ditugu.

Jarraian, Mikel Urdangarin kantautore zornotzarraren kontzertua gozatuko dugu, hots, kantariak herri-kantak gogoraraziko dizkigu eta haren konposizio intimista eta pertsonalek liluratu egingo gaituzte, seguru.

## DEL HOGAR A LA PLAZA DE GEREDIAGA

Cuentacuentos para adultos y  
concierto de Mikel Urdangarin

El narrador Eguzki nos hará participar de la tradición oral que, durante siglos, ha sido la forma de transmisión literaria en Euskal Herria. A través de relatos tradicionales de Durangaldea, los cuentos de Kirikiño, Errose Bustintza, Sarrionandia... nos ayudarán a recuperar la palabra y la lengua, el euskera de la comarca.

A continuación podremos disfrutar del concierto de Mikel Urdangarin, cantautor zornotzarra con un amplio recorrido, que nos trasladará a los cantos populares y nos seducirá con composiciones intimistas y personales.



**Hizkuntza:** Euskara.

**Elkargunea:** Gerediagako foru-landa.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 4a, ostirala. 19:00etan (ipuin-kontalaria) eta 20:00etan (kontzertua).

**Antolatzaileak:** Gerediaga Elkartea eta Bizkaiko Batzar Nagusiak.

**Informazioa eta erreserbak:** 673 005 981 - ejardunaldiak@gmail.com  
**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Euskera.

**Punto de encuentro:** Campa foral de Gerediaga.

**Día y hora:** Viernes 4 a las 19:00 h. (cuentacuentos) y a las 20:00 h. (concierto).

**Organización:** GerediagaElkartea y Juntas Generales de Bizkaia.

**Información y reservas:** 673 005 981 - ejardunaldiak@gmail.com

**Plazas limitadas.**





## ERROMERIAK ETA ERROMESBIDEAK

### Ibilbide gidatua

Mendiko ibilbide zirkular horren eskutik, antzina durangaldetarrak Urkiolako santutegira iristeko erabili ohi zuten bidarri eta bidezidorretatik ibiliko gara. Espiritu gaiztoak uxatzeko ibiltarien babesleku omen den Atxarteko Kristo Santua baselizatik abiatuko gara. Bidean barrena, Atxarteko haitzarte ikusgarria ezagutuko dugu, hain zuzen, Mendiola erreka zeharkatzen duena, zeinean lamiak bizi izan ziren. Eta santutegian, ekainero Antonio santuen erromeria ospatzen den tokiak ezagutuko ditugu.

## ROMERÍAS Y VÍAS DE PEREGRINACIÓN

### Itinerario guiado

En esta ruta circular de montaña recorreremos las calzadas y senderos por los que llegaban antaño las gentes del Duranguesado al Santuario de Urkiola. Partiremos de la ermita del Santo Cristo de Atxarte, refugio de caminantes donde ahuyentaron los malos espíritus. Por el camino conoceremos el espectacular desfiladero de Atxarte, atravesado por el arroyo Mendiola, donde habitaban las lamias. Y, ya en el santuario, conoceremos los lugares en que se celebra cada mes de junio la romería a los santos Antonios.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.  
**Elkargunea:** Atxarteko harrobiak.  
**Eguna eta ordua:** Urriaren 20a, larunbata. 9:30etik 14:00etara.  
**Antolatzaileak:** Toki Alai, Urkiolako Parketxea. Bizkaiko Foru Aldundia.  
**Informazioa eta erreserbak:** 946 814 155.  
[urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus](mailto:urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus)  
**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Euskera / Castellano.  
**Punto de encuentro:** Canteras de Atxarte.  
**Día y hora:** Domingo 20 de 9:30 a 14:00 h.  
**Organización:** Toki Alai, Parketxe de Urkiola. Diputación Foral de Bizkaia.  
**Información y reservas:** 946 814 155.  
[urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus](mailto:urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus)  
**Plazas limitadas.**





# ABANTO ZIERBENA-ABANTO Y CIÉRVANA

## MEATZE KANTINA, ONDARE TOKIA

Bisitaldi gidatua

Peñusco Mendiola Kantinara egingo dugun bisitaldi gidatuan, XIX. mendearen hasierako meatze-herri bateko jolas-jarduerak nolakoak ziren gogoraraziko dugu. Garai hartan, kantina zentro soziala zen; horretan emakumeek eguneroko erosketak egiten zituzten eta langileek ardoa edaten zuten lanaldi luzea bukatu ondoren. Batzuek zein besteek, gainerako bezeroekin elkarrizketan hasteko, harremanak izateko eta, azken finean, aisia-txolarte urriak bizitzeko erabiltzen zuten kantina. Hortaz, meatze-herri haien ondare ukiezina ezagutu eta hori ez ahaztea lortuko dugu.

## LA CANTINA MINERA, LUGAR DE PATRIMONIO

Visita guiada

En esta visita guiada a la Cantina Peñusco Mendiola recordaremos cómo eran las actividades lúdicas en un pueblo minero a principios del siglo XIX. Entonces la cantina era un centro social donde las mujeres hacían las compras necesarias para el día a día, pero también donde los trabajadores tomaban un vino después de la larga jornada laboral. Unos y otras se servían de este lugar para entablar conversación, relacionarse con el resto de parroquianos y, en definitiva, vivir los pocos ratos de ocio de que disponían. Conoceremos así el patrimonio inmaterial de estas comunidades mineras y evitaremos que caiga en el olvido.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 17a eta 31, ostegunak. 18:00etan.

**Organización:** Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.

**Informazioa eta erreserbak:** 946 363 682 - informacion@meatzaldea.eus  
**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** Museo de la minería del País Vasco.

**Día y hora:** Jueves 17 y 31 a las 18:00 h.

**Organización:** Museo de la minería del País Vasco.

**Información y reservas:** 946 363 682 - informacion@meatzaldea.eus

**Plazas limitadas.**

## UMEEN JOLASAK PLAZAN

Umeentzako jarduera

Gure kultur ondareak adierazpen ugari ditu. Horietako asko, esaterako, umeen jolasak, ia oharkabean gertatzen dira. Objektu xume batzuk, irudimen pixka bat eta ume-talde bat besterik ez dute behar izaten gauzatu ahal izateko. Antzina, gure plazak jarduera horiekin betetzen ziren egunero. Gaur egun, berriz, ez ditugu apenas gogoratzen. Hori dela eta, jarduera horren eskutik, haiek Bizkaiko ondare ukiezinarekin zati gisa aldarrikatu nahi ditugu: Museoko langileen laguntzarekin, haurtzaroko jolas haiek gogora ekarriko ditugu, ahantz ez daitezen.

## JUEGOS DE NIÑOS EN LA PLAZA

Actividad infantil

Nuestro patrimonio cultural tiene muchas expresiones. Algunas de ellas, como los juegos infantiles, pasan prácticamente desapercibidas. Apenas necesitan más que unos sencillos objetos, algo de imaginación y un grupo de niñas y niños para materializarse. Antaño, nuestras plazas se llenaban a diario con estas actividades. Hoy, en cambio, apenas sí las recordamos. Por eso, con esta actividad queremos reivindicarlas como parte del patrimonio inmaterial de Bizkaia: con ayuda del personal del Museo recordaremos esos juegos de la infancia para que no caigan en el olvido.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 3a eta 24a, ostegunak. 17:30ean.

**Organización:** Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.

**Informazioa eta erreserbak:** 946 363 682 - informacion@meatzaldea.eus  
**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** Museo de la minería del País Vasco.

**Día y hora:** Jueves 3 y 24 a las 17:30 h.

**Organización:** Museo de la minería del País Vasco.

**Información y reservas:** 946 363 682 - informacion@meatzaldea.eus

**Plazas limitadas.**



# AMOREBIETA-ETXANO



## KANTUZ KANTU

### Kontzertua

Abestiek, giza arimaren emaitza direnek, herri baten eta bertokoen izaera eta sentitzeko era islatzen dituzte, bertan abesti batzuk eta han beste batzuk zergatik abesten ditugun jakitea misterioa bada ere. Kanta horiek Amorebieta-Etxanon kantatzen ziren antzina eta kantatzen dira gaur egun. Gure idiosinkrasia hobeto eza- gutzen eta gure kultur ondarea aberasten lagunduko digutenaren usute osoarekin bildu ditugu.

Jatorrizko bertsoiak aurkeztuko dira, abesbatza, musika-banda, interpretatzaile eta pop eta rock taldeen eskutik, baita kanta ezezagun batzuk ere, hain zaharrak ez direnak, zahartzuz joan direnak.

## KANTUZ KANTU

### Concierto

Las canciones, producto del alma humana, reflejan el ser y sentir de un pueblo, de sus gentes; aunque es un misterio saber por qué cantamos unas aquí y otras allí. Estas canciones fueron cantadas, y aún se cantan, en Amorebieta-Etxano. Las recogemos en el convencimiento de que nos ayudarán a entender mejor nuestra idiosincrasia y a enriquecer nuestro patrimonio cultural.

Se presentarán versiones originales realizadas por coros, banda de música, intérpretes y grupos pop y rock y documentos inéditos, no tan antiguos, que han ido también envejeciendo.

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** Zornotza Aretoa.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 20a, igandea. 12:00etan.

**Antolatzailea:** Ametx Erakunde Autonomoa.

**Informazioa eta erreserbak:** 946 300 650.

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** Zornotza Aretoa.

**Día y hora:** Domingo 20 a las 12:00 h.

**Organización:** Ametx Erakunde Autonomoa.

**Información y reservas:** 946 300 650.

# AREATZA

## GORBEIAKO GURUTZEARI BURUZ


Ibilbide gidatua

Mendiko ibilaldia, zeinaren bidez mendiko euskal klub batek antolatu zuen lehenengo txangoa berdindu nahi izango dugun: 1912an Club Deportivo Bilbao – CDB klubeko kideak Gorbeiaiko Gurutzera ino ziren. Kristandadeko altuenetako bat den 33 metroko gurutzeari buruz, kantikak konposatu, jaiak ospatu eta erromesaldiak eta ibilaldiak antolatu dira, eta Bizkaiko eta Euskal Herriko herritarren usteak milaka modutan adierazi dira. Hortaz, hain leku berezia denari zentzua ematen dioten adierazpenak gogora ekartzeko aukera izango dugu.

## EN TORNO A LA CRUZ DEL GORBEA

Itinerario guiado

Una expedición montañera con la que emularemos la primera salida organizada por un club vasco de montaña, la que en 1912 llevara a los miembros del Club Deportivo Bilbao – CDB hasta la Cruz del Gorbea. En torno a este hito de 33 metros de altura, uno de los mayores de la cristiandad, se han compuesto cánticos y celebrado festejos, se han organizado peregrinaciones y marchas, se han expresado de mil maneras los sentimientos de las gentes de Bizkaia y Euskal Herria. De la mano de Iñaki García Uribe recordaremos así estas expresiones comunitarias que dan sentido a este lugar tan especial.



**Hizkuntza:** Gaztelania.

**Elkargunea:** Pagomakurre.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 6a, igandea. 9:00etan.

**Antolatzaileak:** Gorbeiaiko Parketxea eta Iñaki García Uribe.

**Informazioa eta erreserbak:** 946 739 279 - gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus

**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Castellano.

**Punto de encuentro:** Pagomakurre.

**Día y hora:** Domingo 6 a las 9:00h.

**Organización:** Gorbeiaiko Parketxea e Iñaki García Uribe.

**Información y reservas:** 946 739 279 - gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus

**Plazas limitadas.**

## MUSIKA PLAZARA!

### Jai-eguna

Areatza musikarekin lotuta egon da betidanik. Hori kontuan izanik, aurten, musika eta dantza izango dira ardatz nagusiak Euskal Jaian, hala nola, Areatzako, Bizkaiko zein Euskal Herriko musika-errepertorioak, kantutegiak edota dantzak. Euskal musikaren partituren erakusketa eta Euskal Herriko hainbat dantzaren erakustaldiak ere izango dira.

## MUSIKA PLAZARA!

### Jornada festiva

La villa de Areatza ha estado siempre vinculada a la música. Por eso, este año los ejes principales de nuestra Euskal Jaia serán la música y la danza: a lo largo de todo el día disfrutaremos de los repertorios musicales, canciones y bailes de nuestro municipio, pero también de los de Bizkaia y Euskal Herria. Además, tendremos la oportunidad de ver una exposición de partituras de música vasca y de participar en exhibiciones de diversos bailes de Euskal Herria.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.  
**Elkargunea:** Areatzako plaza.  
**Eguna eta ordua:** Urriaren 19a, larunbata. 11:30ean.  
**Antolatzailea:** Areatzako Udala.  
**Informazioa:** 946 739 010.

**Idioma:** Euskera / Castellano.  
**Punto de encuentro:** Plaza de Areatza.  
**Día y hora:** Sábado 19 a las 11:30 h.  
**Organización:** Ayuntamiento de Areatza.  
**Información:** 946 739 010.

## ARTZENTALES

### SAN MIGELETIK SAN ANTOLINERAINO

#### Ibilbide gidatua

Bizimodua auzoetan antolatuta izanarik markatzen du Artzentaletan; hots, auzo bakoitzak baditu bere historia, tradizioak, santuak eta jaiak. Ibilbide horren eskutik, ondare ukezin jori hori ezagutuko dugu: San Migel de Linaresetik abiatuko gara eta ehiztarien zaindari San Antolinen omenez iraitzi ziren baseliza eta harrizko zezen-plazaraino iritsiko. Bisitaldi gidatu horren bidez, historian zehar auzo horietako herritarrek mugiarazten dituzten atzoko eta gaurko aisia-eta adierazpen-moduak, tokiak, jaiak eta ohiturak berreskuratuko ditugu.

### DESDE SAN MIGUEL HASTA SAN ANTOLÍN

#### Itinerario guiado

La vida en Artzentaletan está marcada por su distribución en barrios, cada uno con su historia, tradiciones, santos y fiestas. Este itinerario nos ayudará a reconocer este rico patrimonio inmaterial, partiendo de San Miguel de Linares para terminar en la ermita y coso taurino de piedra levantados en honor a San Antolín, patrón de los cazadores. Por medio de una visita guiada rescataremos las formas de ocio y las expresiones colectivas de ayer y de hoy, los lugares, fiestas y costumbres que, a lo largo de la historia, mueven a las gentes de estos barrios.



**Hizkuntza:** Gaztelania.  
**Elkargunea:** San Migel de Linaresko plaza.  
**Eguna eta ordua:** Urriaren 13a, igandea 13:00etatik 13:00etara.  
**Antolatzailea:** Artzentaletako Udala.  
**Informazioa eta erreserbak:** 946 109 367- kultura.artzentaletan@bizkaia.org  
**Leku-kopuru mugatua.**  
**Oharra:** Ibilbidea oinez egingo da eta hiru ordu iraungo du. Oinetako eroak, aise ibiltzeko modukoak, eramatea gomendatzen da.

**Idioma:** Castellano.  
**Punto de encuentro:** Plaza de San Miguel de Linares.  
**Día y hora:** Domingo 13 de 10:00 a 13:00 h.  
**Organización:** Ayuntamiento de Artzentaletan.  
**Información y reservas:** 946 109 367- kultura.artzentaletan@bizkaia.org  
**Plazas limitadas.**  
**Nota:** Recorrido a pie de unas tres horas, se recomienda calzado deportivo y/o cómodo para caminar.



# AULESTI

## OLGETA TAILERRAK

Haurrentzako jarduera

Telebistarik, baloirik, bizikletarik edo Internetik ez zegoenean ere, neska-mutiek bazuten jardura nagusi hau: jolasean ibiltzen ziren, jokoan ari ziren, olgatzen ziren. Eta plazetan egiten zuten. Ondarearen Europako Jardunaldiak direla eta, umeen adierazpen horiek, hots, jokoak eta abestiak, bildu ditugu. Herriko adinekoei galdetu diegu eta orain joko haiek ezagutarazi nahi ditugu eta, horretarako, antzinako joko nagusien *–harrigorrika, bostkantotoika, kubike...–* gaineko tailerrak antolatuko ditugu. Eta, hori egiteko, ez dago gure plaza baino toki hoberik.

## JUEGOS INFANTILES

Actividad infantil

Incluso cuando no había televisión, ni balones, ni bicicletas, ni internet, los niños y niñas tenían una actividad fundamental: jugar, se divertían. Solían, además, hacerlo en las plazas. Con motivo de las Jornadas Europeas de Patrimonio hemos recogido estas expresiones infantiles, los juegos y los cantos, preguntando a las personas mayores de Aulesti, y queremos darlos a conocer. Organizaremos talleres de los juegos más importantes de antaño: *harrigorrika, bostkantotoika, kubike...–* Y, para ello, ¡qué mejor lugar que nuestra plaza!



**Hizkuntza:** Euskara.  
**Elkargunea:** Plaza.  
**Eguna eta ordua:** Urriaren 6a, igandea. 13:00etan.  
**Antolatzailea:** Aulestiko Udala.  
**Informazioa:** 946 844 423.

**Idioma:** Euskera.  
**Punto de encuentro:** Plaza.  
**Día y hora:** Domingo 6 a las 13:00 h.  
**Organización:** Ayuntamiento de Aulesti.  
**Información:** 946 844 423.

## EZETZ IGERRI!

Aurkezpena

Herriko historia, berbeta, pertsonak, gertaerak, ondarea... ezagutzera emateko mahai-joko barria da; beste barik ondare jardunaldietarako prestatua. Esan geinke, izatez joko bi direla aurkeztu nahi ditugunak; alde bategatik herriari buruzko galdera bat erantzun beharko da eta ondo asmatzen dabena antzarraren jokoan oinarritutako beste joko batean parte hartu beharko dau.

Jokoak taldean jokatzeko pentsatuta dagoz batez be; gehienbat helduen eta gazteen arteko transmisioa bilatzen da. Aisia eta jostaketaren inguruan ondarea sortzeko beste modu bat.

## EZETZ IGERRI!

Presentación

Presentamos un nuevo juego para dar a conocer la historia, el habla, las personas, los sucesos y el patrimonio de Aulesti, pensado para las Jornadas Europeas de Patrimonio. Son, en realidad, dos juegos en uno: primero habrá que responder a una pregunta sobre nuestro pueblo y, quien la acierte, tomará parte en otra competición, inspirada en los tradicionales "gansos".

Son juegos pensados para participar en grupo y fomentar la transmisión de estos conocimientos de generación en generación. Una forma de crear patrimonio en torno al ocio y la diversión.



**Hizkuntza:** Euskara.  
**Elkargunea:** Udal Areto Nagusia.  
**Eguna eta ordua:** Urriaren 25a, ostirala. 20:15ean.  
**Antolatzailea:** Aulestiko Udala.  
**Informazioa:** 946 844 423.

**Idioma:** Euskera.  
**Punto de encuentro:** Udal Areto Nagusia  
**Día y hora:** Viernes 25 a las 20:15 h.  
**Organización:** Ayuntamiento de Aulesti.  
**Información:** 946 844 423.



## ANTZINAKO TXAKOLINDEGIAK

Ibilbide gidatua eta erakustaldia

Txakolindegien inguruan adierazpen kolektibo ugari garatu da. Gaur egun, horietako bat ezagutzen dugu, hots, "garrafagintza" edo hotz edateko artea. Baina, lehenago, oinez Doniene Gorrondona upategira abiatuko gara eta, ondoren (Aunia Kulturako Juanjo Hidalgo eta Felix Mugurutzaren eskutik), baserrietan era tradizionalan egiten zen txakolina dastatzeko antzinako txakolindegien historian barneratuko gara. Ibilbidea bukatzeko, txakolinaz egin-dako "garrafa" dastatuko dugu.

## LOS CHACOLINES DE ANTAÑO

Itinerario guiado y demostración

En torno a los *txakolindegis*, las tabernas de chacolí, se han desarrollado gran número de expresiones colectivas. Hoy conoceremos una, la "garrafa" o el arte de beber frío. Pero antes nos dirigiremos a pie a la bodega Doniene Gorrondona, para, seguidamente (y de la mano de Juanjo Hidalgo y Felix Mugurutz, de Aunia Kulturak), adentrarnos en la historia de aquellos chacolines de antaño, a los que se acudía para degustar el chacolí elaborado en los caseríos de forma tradicional. Finalizaremos con una degustación de garrafa elaborada con *txakoli*.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** Txakolingunea. Basigoko bide nagusia, 3

**Eguna eta ordua:** Urriaren 26a, larunbata. 10:30etik 13:30era.

**Antolatzaileak:** Txakolingunea, Doniene Gorrondona upategia, Aunia kultura.

**Informazioa eta erreserbak:** 946 028 513 - txakolingunea@bizkaia.eus

**Leku-kopuru mugatua.**

**Oharra:** Ekarri eroso ibiltzeko moduko oinetakoak. Gaztelaniaz egingo da jarduerak, baina galderak eta argibideak euskaraz egin daitezke.

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** Txakolingunea Basigoko bide nagusia, 3.

**Día y hora:** Sábado 26 de 10:30a 13:30 h.

**Organización:** Txakolingunea, Bodega Doniene Gorrondona, Auniakultura.

**Información y reservas:** 946 028 513 - txakolingunea@bizkaia.eus

**Plazas limitadas.**

**Notas:** Se requiere calzado cómodo para caminar. Actividad en castellano, posibilidad de realizar preguntas y recibir aclaraciones en euskera.



# BALMASEDA

## URRIAN... BALMASEDA "PUTXERA" DA

Hitzaldiak eta dastatzek

Balmasedako olla *ferroviaria-putxeraren* Kofradiak antolatzen du jarduera interesgarri hori, "La Robla trenaren babesean" sortutako trenbide-lapikoko bereziaren gaineko kultura eta aisia biltzen dituen. Trenbide-ibilbideko plater tradizionalen dastaketa herrikoia izango da (patatak okelarekin, indaba gorriak eta indaba zuriak) eta trazadurako hiru herrik parte hartuko dute. Jarduera bi-ribiltzeko, trenbide enblematiko haren 125. urteurrenaren gaineko erakusketa antolatuko da.

## EN OCTUBRE... BALMASEDA ES "PUTXERAS"

Charlas y degustaciones

Organizada por la Cofradía de la *putxera* / olla ferroviaria de Balmaseda, una interesante cita reúne cultura y ocio en torno al singular y característico recipiente nacido "al calor del tren de La Robla". Se celebrará una degustación popular de los platos tradicionales del recorrido ferroviario (patatas con carne, alubia roja y alubia blanca) con participantes de 3 localidades del trazado, que se completa con la exposición del 125 aniversario de este emblemático Ferrocarril.



**Hizkuntza:** Gaztelania.

**Elkargunea:** Martín Mendía kalea.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 6a, igandea. 11:30etik aurrera.

**Antolatzailea:** Putxera / Olla Ferroviaria Kofradia eta Balmasedako Udala.

**Informazioa:** 946 800 778 eta 688 742 944.

**Idioma:** Castellano.

**Punto de encuentro:** Calle Martín Mendía.

**Día y hora:** Domingo 6 a partir de las 11:30 h.

**Organización:** Cofradía de la Putxera / Olla Ferroviaria y Ayuntamiento de Balmaseda.

**Información:** 946 800 778 y 688 742 944.





## BALMASEDA: ATZOKO ALTXORRAK

Gymkhana

OREXINAL Cultura y Patrimonio de Balmaseda izeneko elkarteak taldetan jokatzeko joko-pista proposatzen digu Hiribilduko tradizioak, kultura eta ondarea modu dibertigarrian ezagutzeko. Ondarea adierazpen kolektibo gisa ulertzeko modua. Hasieran mapa bat emango zaie parte-hartzaileei eta, pisten laguntzarekin aurkituko dituzten datuei esker, ibilbidea egingo dute. Jokoan zehar, taldeek mapa burutu gabea izango dute eta hori partaide guztiak elkartzen direnean osatuko da. Ibilbidea burutu ondoren, opari bat lortuko dute.

## BALMASEDA: LOS TESOROS DEL PASADO

Gymkhana

La Asociación OREXINAL Cultura y Patrimonio Balmaseda nos propone un juego de pistas en grupos, para conocer de forma divertida tradiciones, cultura y patrimonio de nuestra villa. Una manera de entender el patrimonio como una expresión colectiva. Con el mapa que se entrega al principio, deberemos completar un recorrido buscando los datos que nos irán marcando las pistas. A lo largo del juego cada grupo obtendrá un mapa inacabado que sólo podrá completarse cuando se junten todos los participantes. Una vez completado el recorrido obtendremos un obsequio.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** Balmasedako pilotalekua (Martin Mendia ibiltokia).

**Eguna eta ordua:** Urriaren 19a, larunbata. 11:00etatik 13:00etara.

**Antolatzaileak:** Orexinal Cultura y Patrimonio elkarte eta Balmasedako Udala.

**Informazioa eta erreserbak:** 946 800 778 - laencartada.gidari@bizkaia.eus  
**Leku-kopuru mugatua.**

**Oharra:** Familientzat da egokia jarduera. 6 urtekoentzat edo hortik gorakoentzat gomendatzen da. Eroso ibiltzeko moduko oinetakoak eramatea gomendatzen da.

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** Frontón de Balmaseda (Paseo de Martín Mendia).

**Día y hora:** Sábado 19 de 11:00 a 13:00 h.

**Organización:** Asociación Orexinal Cultura y Patrimonio y Ayuntamiento de Balmaseda.

**Información y reservas:** 946 800 778 - laencartada.gidari@bizkaia.eus  
**Plazas limitadas.**

**Notas:** Actividad adecuada para familias. Edad mínima recomendada 6 años. Se recomienda calzado cómodo para caminar.

## ARDIA ETA ARTILEA

Bisitaldia– Umeentzako tailerra

Tradizioz, ohiturak eta egiteko erak transmititzeko, kultur ondare ukiezina iraunarazteko gehien erabili den moduetako bat izan da jokoa. Eta gaur La Encartadan jokatu dugu: nagusiak eta txikiak bisitaldi gidatu berezia gozatuko dute, hots, pisten bitartez, ardi-ilea artile-hari nola bilakatzen den eta ehunak sortzeko hariak nola gurutzatzen diren ikusiko dugu. Ondoren, ikasitakoa aplikatuko dugu eta ehungailu txikietan praktikatu, eta emaitza etxera eraman.

## LA OVEJA Y LA LANA

Visita – Taller infantil

El juego ha sido, tradicionalmente, una de las maneras más utilizadas para transmitir costumbres y modos de hacer, para perpetuar el patrimonio cultural inmaterial. Y hoy vamos a jugar en La Encartada: adultos y menores disfrutarán de una visita guiada especial en la que descubriremos por medio de pistas cómo el pelo de la oveja se transforma en hilo de lana y cómo se pueden entrecruzar los hilos para obtener tejidos. Después, podremos aplicar lo que hemos aprendido y practicar en los txikitelares, llevándonos a casa el resultado.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** La Encartada Fabrika-Museoa.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 6a, 13a, 20a eta 27a, igandeak. 12:00etatik 13:00etara.

**Antolatzaileak:** La Encartada Fabrika-Museoa.

**Informazioa eta erreserbak:** 946 800 778 - laencartada.gidari@bizkaia.eus

**Leku-kopuru mugatua.**

**Oharra:** Familientzat da egokia jarduera. 6 urtekoentzat edo hortik gorakoentzat.

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** La Encartada Fabrika-Museoa.

**Día y hora:** Domingos 6, 13, 20 y 27 de 12:00 a 13:00 h.

**Organización:** La Encartada Fabrika-Museoa.

**Información y reservas:** 946 800 778 - laencartada.gidari@bizkaia.eus

**Plazas limitadas.**

**Notas:** Actividad adecuada para familias. Edad mínima recomendada 6 años.

# BARAKALDO

## BOLA JOKOA GOROSTITZAN

### Bisitaldi gidatua

Bola-jokoa oso lotuta egon da beti Gorostitza auzoarekin. Badakigu auzoan bolatoki bat egon zela 1898. urtetik gutxienez, eta 1945ean inguruko herritarrek erosi zituztela bertan jokaleku bat eraikitzeko lursailak. Hamabost urtez erabili gabe egon ondoren, 2015eko ekainean leheneratu egin zen, Gorostiza 33 elkartearen ekimenez eta, gaur egun, Barakaldoko bigarren bolalekua da, Regatokoarekin batera. Bisitaldi horretan, Gorostiza 33 elkarteko idazkari Pedro Mazak bolatokiaren historia azalduko digu, baita katxete erako bola-jokoa zertan datzan ere.

## BOLOS EN GOROSTITZA

### Visita guiada

El juego de bolos ha estado siempre muy ligado al barrio de Gorostitza. Sabemos que aquí hubo un carrejo al menos desde 1898, y que en 1945 fueron las gentes de la zona quienes compraron los terrenos para construir aquí una cancha. Recuperado en junio de 2015, tras 15 años de inactividad y por iniciativa de la asociación Gorostiza 33, hoy es el segundo carrejo de bolos de Barakaldo, junto con el de El Regato. En esta visita, Pedro Maza, secretario de Gorostiza 33, nos explicará la historia del carrejo y en qué consiste el deporte de bolos *a katxete*.



**Hizkuntza:** Gaztelania.

**Elkargunea:** Ureta 8.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 20, igandea. 11:00etan.

**Antolatzaileak:** Barakaldoko Udala, Barakaldoko Historia eta Ingurumen Interpretaziorako Zentroa (CIHMA)– Luis Choya Almaraz eta Club Gorostiza 33 kluba.

**Informazioa eta erreserbak:** 944 971 390 - ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org  
**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Castellano.

**Punto de encuentro:** Ureta, 8.

**Día y hora:** Domingo 20 a las 11:00 h.

**Organización:** Ayto de Barakaldo, CIHMA-Luis Choya Almaraz y Club Gorostiza 33.

**Información y reservas:** 944 971 390 - ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org

**Plazas limitadas.**

## IPIUINAK, ELEZAHARRAK ETA PASADIZOAK

### Ipuin-kontalariak

Gure kultur ondare ukiezineko usadioak, ohiturak eta ogibideak transmititzeko modua izan da tradizioz ahozko kontaketa. Gainera, entzule gutxiri istorioak kontatzeak, hots, gizarte guztien adierazpen-modu esanguratsuenetako bat denak, batasun-lotura sendoak sortzen ditu. Era berean, jarduera horrek Carlos Ibáñez Lópezen *Barakaldo, cuentos leyendas y sucedidos* lana ezagutaraziko digu. Egilea pertsona entzutetsua da, historialaria, idazle eta poeta bezala nabarmendu zen ile-apaintzailea, 2006an Udaleko Urrezko Intsignia eskuratu zuena.

## CUENTOS, LEYENDAS Y SUCEDIDOS

### Cuentacuentos

La narración oral ha sido tradicionalmente medio de transmisión de usos, costumbres y oficios; de nuestro patrimonio cultural inmaterial. Contar historias a un pequeño auditorio es, además, una de las formas de expresión más características de todas las sociedades, que crea fuertes lazos de unión. Con esta actividad daremos además a conocer la obra *Barakaldo, cuentos leyendas y sucedidos*, de Carlos Ibáñez López, personaje ilustre reconocido con la Insignia de Oro del Municipio en 2006, un peluquero que destacó como historiador, escritor y poeta.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** Barakaldoko Historia eta Ingurumen Interpretaziorako Zentroa (CIHMA)– Luis Choya Almaraz.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 6a eta 27a, igandeak. 12:00etan.

**Antolatzaileak:** Barakaldoko Udala, Barakaldoko Historia eta Ingurumen Interpretaziorako Zentroa (CIHMA)– Luis Choya Almaraz eta Bego Alabazan.

**Informazioa eta erreserbak:** 944 971 390 - ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org  
**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** Centro Histórico Medioambiental CIHMA-Luis Choya Almaraz.

**Día y hora:** Domingos 6 y 27 a las 12:00 h.

**Organización:** Ayto de Barakaldo, CIHMA-Luis Choya Almaraz y Bego Alabazan.

**Información y reservas:** 944 971 390 - ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org

**Plazas limitadas.**



## OIHALAK EZKUTATZEN DUENA

Bisitaldi gidatua eta antzerkia

Social Antzokiak lotura berezia du Basaurirekin. 1957an zabaldu zen antzokia, La Basconia enpresaren ekimenez, eta 2018an 25 urte bete ziren berriz zabaldu zenetik. Bisitaldi horri esker, antzokia bes-telako moduan ezagutzeko aukera izango dugu, hots, jendearentzat zabalik ohi dauden tokietara ez ezik, artista eta teknikarien tokietara ere sartuko gara, hala nola, atondora, besaulki-barlara, anfi-teatrora, agertokira, agertoki azpira, aldageletara eta proiektzio-gelara. Bisitaldia bukatu ondoren, antzerki-emanaldia egongo da.

## LO QUE EL TELÓN ESCONDE

Visita guiada y representación teatral

El Social Antzokia tiene una especial vinculación con el municipio de Basauri. Fue inaugurado en 1957, por iniciativa de la empresa La Basconia, y en 2018 se cumplieron 25 años de su reinauguración. Y esta visita nos permitirá descubrir este lugar de una manera distinta, accediendo a las zonas abiertas habitualmente al público, pero también a los espacios dedicados a artistas y personal técnico: hall, patio de butacas y anfiteatro, escenario, bajo escenario, camerinos, sala de proyección. Al finalizar la visita tendrá lugar una representación teatral.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** Social Antzokia.

**Eguna eta ordua:** Urriaren 27a, igandea.11:30ean.

**Antolatzailea:** Basauriko Udala.

**Informazioa eta erreserbak:** 944 666 311 (Kultura Saila) - cultura@basauri.eus

**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** Social Antzokia.

**Día y hora:** Domingo 27 a las 11:30 h.

**Organización:** Ayuntamiento de Basauri.

**Información y reservas:** 944 666 311 (Departamento de Cultura).

cultura@basauri.eus

**Plazas limitadas.**



# BERANGO

## GERRA GARAIAN DIBERTITZEA

*Gymkhana*

1936. eta 1937. urteetan, gatazka gorabehera, aisialdirako astia ere egon zen. Orain, umeentzat antolatatu den jarduera horren bidez, Burdin Hesiaren hainbat tokitatzat gidatuko ditugu umeak eta, frogak asmatu ahala, ondare horren garrantziaz jabetuko dira. Bitxikeria eta antzerki erako kontakizun askoren artean, Gerra Zibilean egindako musika, jokoak eta kirolak ezagutuko dituzte. Berangoko metraladore-habian bukatuko da jarduera, eta sorpresa polit batetik amaiera bikaina emango dio abentura horri.

## DIVERTIRSE EN TIEMPOS DE GUERRA

*Gymkhana*

Durante 1936 y 1937, a pesar del conflicto, también hubo tiempo para el ocio. Ahora, a través de esta actividad dirigida a niños y niñas, guiaremos a las personas participantes por diferentes espacios del Cinturón de Hierro donde, resolviendo pruebas, conocerán la importancia de este patrimonio. Entre muchas curiosidades y relatos teatralizados, se acercarán a la música, al juego y al deporte durante la Guerra Civil. La actividad finalizará en el nido de ametralladora de Berango, donde una bonita sorpresa pondrá el broche final a esta aventura.



**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania.

**Elkargunea:** Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa (Simon Otxandategi 64).

**Eguna eta ordua:** Urriaren 27a, igandea. 10:30etik 13:00etara.

**Antolatzaileak:** Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa eta Berangoko Udala.

**Informazioa eta erreserbak:** 946 682 143 - burdinhesia@berango.org

**Leku-kopuru mugatua.**

**Idioma:** Euskera / Castellano.

**Punto de encuentro:** Museo Memorial del Cinturón de Hierro / Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa (Simon Otxandategi, 64).

**Día y hora:** Domingo 27 de 10:30 a 13:00 h.

**Organización:** Museo Memorial del Cinturón de Hierro y Ayuntamiento de Berango.

**Información y reservas:** 946 682 143 - burdinhesia@berango.org

**Plazas limitadas.**





## "... KANTATUAZ SORTZEN DIRA GURE ITXAROPENAK"

Hitzaldia, Iñaki Berazategiren eskutik

Jon Lopategiren bertso-lerro horrek hauxe adierazten du: Gerra Zibilaren eta diktadura-aldi frankistaren egoera latzetan, musikan eta abestietan adorea sendotzeko, bihozmina alaitzeko, mina arintzeko, gosea ahazteko, arerioa madarikatzeko edo etxea eta pertsona maiteen galera gogora ekartzeko modua aurkitzen jakin izan genuen. Iñaki Berazategi kazetariaren eskutik, gerra eta erresistentzia garaian abestu ziren kantak eta jo ziren musikapiezetako batzuk berreskuratuko ditugu, kendu zitzaigunaren soinu-oroinena berreraikitzeko.

## "... KANTATUAZ SORTZEN DIRA GURE ITXAROPENAK"

Conferencia por Iñaki Berazategi

Este verso de Jon Lopategi expresa cómo en las difíciles circunstancias de la Guerra Civil y la dictadura franquista supimos encontrar en la música y las canciones el medio para afianzar el valor, alegrar penas, mitigar el dolor, olvidar el hambre, maldecir al enemigo o evocar la pérdida de hogar y seres queridos. De la mano del periodista Iñaki Berazategi recuperaremos algunas de las canciones y piezas musicales que se interpretaron durante el periodo de la guerra y la resistencia, para reconstruir la memoria sonora de la que se nos despojó.

**Hizkuntza:** Gaztelania.

**Elkargunea:** Kultur Etxeko ekitaldi-aretoa (Simon Otxandategi 64).

**Eguna eta ordua:** Jueves 10. 19:00etan.

**Antolatzaileak:** Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa eta Berangoko Udala.

**Informazioa:** 946 682 143.

**Oharra:** Hitzaldia hasi eta ordu-erdi lehenago, bertaratuko direnek Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoan bisitaldi gidatua egiteko aukera izango dute.

**Idioma:** Castellano.

**Punto de encuentro:** Salón de actos de Berangoeta Kultur Etxea (Simon Otxandategi, 64).

**Día y hora:** Jueves 10 a las 19:00 h.

**Organización:** Museo Memorial del Cinturón de Hierro y Ayuntamiento de Berango.

**Información:** 946 682 143.

**Nota:** Media hora antes de la conferencia, las personas asistentes podrán realizar una visita guiada al Museo Memorial del Cinturón de Hierro.





# BERMEO

## ERRITUAK: MADALEN EGUNEKO JAI

Txangoa itsasontzian

